

## 2015-2016 ikasturte hasierako ekitaldi ofiziala

2015/09/18

Atzo izan zen MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN 2015/2016 ikasturtearen irekiera ofizialaren ekitaldia, Enpresagintza Fakultatearen Oñatiko campusean. Ikasturte akademikoaren bere lehen irekiera-ekitaldian, Vicente Atxa Unibertsitateko errektoreak MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN gertaera garrantzitsuenak izan zituen aipagai. Errektore jaunak lankidetzan nabarmendu zuen gertaera horien guztien artean; izan ere horixe izan zen unibertsitateak burututako aldaketa-proiektuak, euskal gizartean eta ekonomian horren inpaktu handia izan zutenak, garatzeko gidalerroa. Horrekin batera, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO errektoreak unibertsitatearen iraganeko eta etorkizuneko beste bi funtsezko zutabe ere aipatu zituen: ikasleen eta erakundearen beraren nazioartekotzea batetik, eta jardunean ari diren profesionalen birkualifikazioa bestetik.

Errektoreaz gain, ekitaldi ofizialean izan ziren Cristina Uriarte Hezkuntza Sailburua eta MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Idazkari Nagusi Idoia Peñacoba ere. Hain zuzen, azken horrek aurkeztu zuen 2014-2015 ikasturteko Memoria Akademikoa. Irekitze-hitzaldia, berriz, Saioa Arando doktorearen esku egon zen. Arando MONDRAGON UNIBERTSITATEKO "Pertsonak Lankidetzan" ezagutza-arloko koordinatzailea eta MIKEKO koordinatzaile zientifikoa da, eta "*Ezagutzak libre egingo gaitu eta lanak autoerrealizatzen*" izeneko hitzaldia eman du. Iñigo Urkullu lehendakaria arduratu da ekitaldia ixteaz.

### Gertaera garrantzitsuak eta erronkak

Hitzaldiari hasiera emateko, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Errektoreak ia burutze dagoen plan estrategikoa izan zuen aipagai, bertan lankidetzan funtsezkoa izan baita gizartea eraldatuko duten gazteak prestatzeko proiektuak garatzeko orduan. Hainbat adibide jarri zituen ildo horretan: ekainean lehen promozioa graduatu zuen Basque Culinary Center, Estatuko lehen gastronomia-unibertsitatea; edota Orona-IDEO Berrikuntza Poloa, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK bertan bi ingeniari-eremu emateaz gain, campus horretan bat egiten baitute enpresak, unibertsitateak eta teknologia-zentroek. Lankidetzaren ildo horretan, duela bi urte Unibertsitateak Bilbao Berrikuntza Faktoria jarri zuen abian, Bilboko Udalarekin batera. Campus horretan ere bat egiten dute unibertsitateak, enpresek eta enpresa-mintegiak. Irakasleak prestatzeko hezkuntza-graduetan MONDRAGON UNIBERTSITATEAK berrikuntzaren alde egindako apustua eta euskal hezkuntza-sistemako etorkizuneko irakasleen prestakuntzan izan duen eginkizuna ere nabarmendu zituen.

Ikasleen nazioarteko esperientzia azpimarratu ondoren, Vicente Atxak ikasleen mugikortasuna ez ezik, unibertsitatearen nazioartekotzea ere azpimarratu zuen, eta Queretaroko campus berria inauguratu izana jarri zuen adibidetzat. MONDRAGON INTERNACIONALEkin batera diseinatu eta urrian abian jarriko den Erakundearen Nazioartekotzea masterrak, hain zuzen, ikasleak nazioartekotzeko helburu horri erantzun dio. Hitzaldian MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN lorpenak eta nazioartean nahiz estatuan lortutako rankingak eta aitortzak gogorarazi zituen Atxak, "*irakaskuntza-alorrean, ikerketaren kalitatean, ezagutzaren transferentzian eta lurraldearekiko errotzean hoberenen artean kokatu baikaituzte*".

Errektoreak, halaber, jardunean ari diren profesionalen birkualifikazioa eta gaitasuna ere nabarmendu zituen, azken lau urteetan 20.000 profesionaletik gora trebatu baitira Unibertsitateak eskaintzen duen etengabeko prestakuntzan. Zentzu horretan, nabarmendu zuen etorkizuneko erronka izango dela "*era guztietako enpresa eta antolakundeek aurkituko duten egoera demografiko eta laboral berriari erantzuteaz gain, egoera horretara egokitzeko profesionalen kompetentzietan eta gaitasunetan behar izango duten egokitzapenari ere erantzutea*". Izan ere, profesionalentzako prestakuntzaz gain, ikasturte honetan Unibertsitateak MOOC prestakuntza irekiko bi ikastaro



TU LANKIDEEK utzitako argazkia

eskainiko ditu: hacking etikoa eta kooperatibak kudeatzeko gakoak.

Ikerketak duen garrantzia azpimarratu eta gogorarazi zuen Unibertsitateak Ikerketako eta Transferentziako jardunari eutsi diola, betiere ezagutzaren sorkuntza eta enpresan txertatzea orekatzeko asmoz. Hala, unibertsitatearen filosofiarekin bat egingo duen ikerketa eraginkorraren aldeko apustua egin du; hau da, *"ikerketak beti izan dezala muinean ezagutza transferitzeko helburua, gure gizartean, gure ekonomian inpaktua izan dezala, jakinik emaitzetako askok oso epe luzera baizik ez dutela izango eragina"*.

### **Etorkizuna eraikitzen**

Hitzaldian zehar, Errektoreak berretsi zuen Euskadik etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko duen baliorik handiena pertsonak eta batez ere gazteak direla. *"Euskadi ez da handia tamainan, baina bai teknologian, ezagutza eta talentuan, eta horretan jarri behar dugu konfiantza, berdintasun- eta ongizate-maila handiagoak eskuratzeko"*. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak aurreko ikasturtean onartutako planekiko (2015-2018 aldirako Unibertsitate Plana eta 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana -ZTBP 2020-) konfiantza osoa adierazi zuen, plan horiei esker unibertsitateak herrialde-estrategiarekin lerrokatzeko aukera izango duelakoan. Gainera, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK enpresen lehiakortasuna hobetuko duen ezagutza sortu eta transferitzeko laguntza publiko handiagoak izango dituen itxaropena adierazi zuen Errektoreak, horrek unibertsitatearen eta enpresaren artean behar den lankidetzaren indartuko duelako ustean.

Era berean, azpimarratu zuen Unibertsitateak bere egiten dituela 2015-2018 aldirako Unibertsitate Planean zehaztutako lehentasunak, goimailako prestakuntza eta gazteen prestakuntza integrala etengabe hobetzeko konpromisoarekin, gaurko eta etorkizunerako hobeto prestatzeko asmoz.

*"Epealdi estrategiko berri baten hasiera honetan, MONDRAGON UNIBERTSITATEAN hezkuntza-berrikuntzan aitzindari izaten jarraitu nahi dugu, eta unibertsitateko hezkuntza-eredua eraldatzeko behar den jauzia eman, 2000. urtean Boloniaren hastapenean Mendeberrirako ereduarekin egin genuen bezalaxe"*.

*"Euskadi eraikitzeko etorkizun horretan MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eragile aktiboa izaten jarraitu nahi du, eta, horretarako, Euskadiren erronkekin lerratuz eta gizartearekiko gure konpromisoa berriro behar dugu"*, berretsi du Errektoreak. Asmo hori lortzeko, unibertsitateak *"gure enpresen lehiakortasunean"* duen eginkizuna aldarrikatu eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK *"enpresa ehunarekin lankidetzan aritzeko"* konpromisoa azpimarratu du, *"maila globalean lehiatuz berton enplegua sortzeko"*.

Hitzaldia amaitu aurretik, Atxak berretsi zuen MONDRAGON UNIBERTSITATEA onura publikoko unibertsitatea dela. *"MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Euskal Unibertsitate Sistemarik onena nahi du, oro har Euskadirentzat ona delako eta interes partikularragatik ere bai, sistema on batean baino ezin dugulako eskaini unibertsitate-prestakuntzarik onena, gizartearekin dugun konpromisoa betetzeko"*.

### **2014/2015 ikasturtearen balantzea**

Ikasturte honetan, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK graduko 15 titulu eskaini ditu guztira: bederatzi ingeniarietan, bi enpresa-zientzietan, bi hezkuntzan, bat ikus-entzunezko komunikazioan eta bat gastronomiazientzietan. Horretaz gain, informatikako eta telekomunikazioko gradu bikoitza, 13 unibertsitate-master eta hogeita hamar titulu propio, ikastaro aditu eta aurreratu ere eman ditu bere campusetan.

2014/2015eko matrikulazioei erreparaturik, 4.285 ikasle eman dute izena, horietatik 3.518k graduko tituluetan eta 630ek unibertsitate-masterretan.

2014-2015 ikasturtean, 932 ikasle egin dute beren karrera amaierako proiektua enpresetan eta guztira 819 ikasle egin dituzte praktikak horietan edo ikastetxeetan.

Gero eta gehiago dira, gainera, prestakuntza atzerrian burutzen duten ikasleak. 2014/15 ikasturtean 631 ikasle izan dira, aurreko urtean baino % 34 gehiago. Horietatik % 54 praktikak eta karrera-amaierako proiektuak burutu dituzte atzerriko unibertsitateetan eta enpresetan. Bestalde, atzerriko 183 ikasle izan ditugu gure artean.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK I+G alorrean izan duen jarduerari dagokionez, Unibertsitatearen ustez bere hiru jarduerak (irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia) biltzea da irakaskuntzaren kalitatea areagotzeko eta gizarte-konpromisoa betetzeko modurik eraginkorrena.

Guztira 560 ikerketa-proiektu eta transferentzia-jarduera burutu ditu Unibertsitateak 2014-2015 ikasturtean, aurreko urtean baino % 30 gehiago.

Horregatik, Mondragon Unibertsitatearen elkarlanaren bidezko ikerketa-ereduaren printzipioa ikerketa lerrokatzean oinarritzen da, oinarrizko ikerketa bideratutik berrikuntzaraino hain zuzen, hiru eragile garrantzitsuren parte hartzearekin: unibertsitatea, teknologia-zentroak eta enpresak.

Filosofia horrekin, eta bereziki enpresa-sektoreak bizi duen abagune korapilatsua gorabehera, 2015-2015 ikasturtean sendotuz joan da ikerketa-jarduera, enprekin egindako proiektuen ondoriozko sarrerei esker. Ikerketa-jarduera horrek guztia bultzada handia eman dio hirugarren zikloari. Zehazki, 2014/2015 ikasturtean 138 lagunek hartu dute parte doktorego-programetan.